

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektuaren arrakasta bermatzeko, ezinbestekoa izango da elkarte eta hornitzaile estrategikoen laguntza izatea. Balioko diguten kolaboratzaileak aukeratu ditugu gure produktuaren kalitatea eta eraginkortasuna ziurtatzeko.

Gure proiektuak lan-ingurune eroso eta egonkorra behar du, eta horretarako UGGASA enpresaren laguntza izango dugu. UGGASA-ek bulegoaren alokairua eskainiko digu, gure taldeak lan egin dezan beharrezko material eta baliabide guztiak izan ditzan. Espazio egoki batek gure eguneroko jarduera eta antolaketa erraztuko ditu. UGGASA Urola Garaian ezarritako edozein sektoretako enpresei zuzendutako zerbitzua da, inguruko erakunde publiko eta pribatuekin koordinatuta lan egiten du enpresei estaldura teknikoa eta aholkularitza espezializatua eskaintzeko hainbat esparrutan. Helburua da lankidetzarako eta berrikuntzarako irekiagoa den enpresa mota bat sustatzea, haren eraldaketa eta aldaketa kulturala bultzatuz.

Horrez gain, proiektuaren garapenerako beharrezkoak izango diren materialak ArcelorMittal, repsol, Sick eta La Perla enpresek hornituko dizkigute. Enpresa horiek kalitate handiko lehengaiak eskaintzen dizkigute, eta horrek gure produktuen sendotasuna eta iraunkortasuna bermatuko ditu. Arcelorrek altzairu herdoilgaitza eskeinko digu, Repsolek polipropilenoa, Sick.ek sentsoreak, kablek eta motor elektrikoa eta La Perlak pintura poteak. Enpresa horiek, guregandik oso gertu daude 20-40 minutu ingurura, horren ondorioz, garraiobidea motzagoa izango da.

Behin produktua prest dagoenean, oinarritzkoa izango da merkaturatze-prozesua zaintzea. Horretarako, hainbat salmenta-kanal erabiliko ditugu, gure produktua bezeroengana azkar eta modu errazean iristeko. Amazon izango da gure online salmentarako kanal nagusia, mundu osoko bezeroengana iristeko aukera eskaintzen duelako. Horrez gain, MediaMarkt, Fnac eta El Corte Inglés dendak erabiliko ditugu. Salmenta-puntu hauek oso ezagunak dira eta bezero askorengana iristeko bidea ematen digute.



Gure produktuak helmugara baldintza ezin hobeetan iristea beste lehentasun bat izango da. Horregatik, garraioa modu seguru eta fidagarrian antolatuko dugu Seurren enpresaren bitartez, produktuen kalitatea arriskuan jarri gabe. Banaketa-prozesuari garrantzi handia emango diogu, bai gure kolaboratzaileekin, bai azken bezeroarekin.

Proiektua finantzatzeko, bi iturri nagusi izango ditugu, alde batetik, mailegu bat eskatuko diogu bankuari, gure proiektuaren hasierako gastuak estaltzeko, eta bestetik, gure poltsikoko dirua ere jaarriko dugu. Gure ideia Sabadel bankuari dirua eskatzea da, konfiantzazko bankua baita eta gainera baldintza bikainak eskaintzen dizkigu.

Azkenik, publizitatea izango da gure proiektuaren arrakastaren beste atal garrantzitsu bat gure produktua zabaltzeko. Sare sozialetan, hala nola Facebook, Instagram eta TikTok plataformetan, gure kontua edukiko dugu bertan argazkiak txertatzeko. Aldi berean, telebista iragarkiak ere erabiliko ditugu, batez ere Tele 5 eta EITB 1 kanaletan, publiko zabalago batengana heltzeko. Publizitate honek gure produktuaren salmentak bultzatuko ditu.